

HERENSULGE GORRIAREN URTEA

ENEKO AIZPURUA



erein

HERENSUGE GORRIAREN URTEA

13

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2013ko azaroan

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Eneko Aizpurua

© EREIN. Donostia 2013

ISBN: 978-84-9746-854-1

L. G.: SS-1579/2013

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

ENEKO AIZPURUA

**HERENSUGE
GORRIAREN URTEA**

erein

BESTE SEINALE BAT AGERTU ZEN
ZERUAN: HERENSUGE GORRI HANDI BAT,
ZAZPI BURU ETA HAMAR ADAR ZITUENA,
ETA BURUETAN KOROA BANA

Apokalipsia 12:3

HEY, LET'S BE CAREFUL OUT THERE

*Sergeant Phil Esterhaus
Hill Street Blues*

1

HITZORDUA DEABRUAREKIN



Gutxienez ordu erdi bat bazeraman aparkalekuan zain, baina han ez zegoen haren arrastorik ere. “Orduz okertu ote naiz?”, zalantza egin zuen Anderrek, sakelako telefonoari begira. Egia esatera, ez zen oso ohikoa hitzordu bat halako ezordutan jartzea. “Gaueko hamabietan, Ordiziako Barrena parkearen ondoko aparkalekuan”, irakurri zuen mezua laugarren aldiz bost minutuan.

Ez zen gutxiagorako. Zita garrantzitsua zen. Bere diru-arazoak konponduko zituelakoan, bezperan deitu zion morroiarengan jarriak zituen itxaropen guztiak. Bere lantegiko eraikuntza materiala saltzeko asmoz Interneten jarri zuen iragarkiaz galdezka deitu zion tipo misteriotsu hark. Izena Radu zuela esan zion, eta Ordizian bizi zela. Ez zuen ezagutzen. Baina berdin zion. Deabruarekin berekin ere egingo zuen hitzordua Anderrek, zorrak kitatzen laguntzen bazion.

Eraikuntzaren sektoreak lur jo zuenetik, zementu bloke astunak balira bezala pilatu zitzaizkion zorrak. Eraikuntza materialen lantegia, eskualde osoan ezaguna eta bere familiaren ikur sakratua, erreka jotzeko zorian zegoen. Oilo ipurdia jartzen zitzaion pentsatze hutsaz nola erreakzionatuko zuten bere emazteak eta senitartekoek, jakiten zutenean urrezko arrautzak erruten zituen oiloari zintzurra moztu ziola.

Lepondoa igurtzi eta listua irentsi zuen. Haize pixka bat hartzea ongi etorriko zitzaiola pentsatu zuen. Bere BMW beltz distiratsutik irten eta oinez ibili zen, kras-kras, aparkalekuko hartxintzarretan, putzu izoztuen artean. Hotzetik babesteko jakaren lepoa igotzekotan zen, esku izoztu bat sentitu zuenean lepoaldean. Buelta eman eta hogeit hamar urteko gazte beltzaran argal bat ikusi zuen.

–Ander zara? –galdetu zion gazteak.

–Bai, eta zu Radu izango zara, ezta? –Irribarre egiten saiatu zen Ander, mutil hari errumaniar ijito horietako baten tankera hartzen ziola pentsatzen zuen bitartean.

Buruaz baiezkoa egin zion etorri berriak, zuzenean harira joan baino lehen:

–Eraikuntza materiala hemen duzu?

Anderrek mesfidantzaz begiratu zion Raduri, bere buruari galdezka zertan ari zen errumaniar ijito batekin tratuan. Ezagunen batek ikusiko balu.

–Lantegian –erantzun zion, zalantzak zalantza, ijitoari. Ez zegoen diru premia gorrian egotea bezalakorik pragmatismora lerratzeko.

–Hurbil dago? –ijitoak, materiala ikusteko gogoak amorratzen.

–Bai, industrialdean.

–Hortaz, goazen lehenbailehen.

Laster heldu ziren industrialdera. BMWa lantegi aurrean utzi eta pabiloi handi batean sartu ziren. Raduk materiala aztertu zuen.

–Zenbatean utziko zenidake? –Eskuak igurtzi zituen ijitoak.

–Bi kiloan.

–Bi kiloan? –ijitoak, eskuak buruan, “artaburu hau burutik zagok” esanez bezala—. Baina nork erosiko dizu materiala prezio horretan? Ez zara enteratu etxebizitzan burbuila aspaldi lehertu zela?

Inork baino hobeki zekien hori Anderrek. Burbuilaren leherketak bete-betean harrapatu zuen.

–Primerako materiala da –defendatu zuen bere burua lantegiaren jabeak goraki, isilka erantsi baino lehen—: Dena den, ordainketa modu guztiak aztertzeko prest nago. Beltzean ordaintzen badidazu...

–Uf, hala ere, gehiegi da niretzat, salbu eta...

–Salbu eta zer?

–Ordainketa modu guztiak aztertzeko prest zaudela esan duzunez... –ijitoak, doinu enigmatikoan.

Isilune bat egin zuen hizketan jarraitu baino lehen.

–Kontua da ez daukadala hainbeste diru, zuri eskura emateko –esan zuen, aldean ekarri zuen maletatxo beltz bat irekitzen zuen bitartean.

Maleta ireki eta tindatutako bi paper zati, aluminio paper bat eta hogeituroko billete bat atera zituen. Ondoren, tindatutako bi paper zatien artean kontu handiz billetea sartu eta aluminio paperarekin estali zuen. Prozesu kimiko labur bat egin eta koloreztatuta zeuden paperak hogeituroko bi billete bihurtu ziren.

–Harrigarria! –oihu egin zuen Anderrek, ile gominaz beteak lehen baino tenteago. Begiek bi ontza-urre balira bezala distirutzen zioten. Non arraio ikasi ote zuen magia trikimailu hura ijito deabru hark?

–Nahi adina lor ditzaket –gaineratu zuen bizkor errumaniar ijitoak–. Horrela azkarrago ordainduko nizuke. Zer iruditzen zaizu?

Ordiziar gaztea bankuko maileguez eta bere negozioan pilatutako zorrez gogoratu zen berriro. Martxa hartan, gauzek hobera egiten ez bazuten, bere BMW maitea, saltzeko ez zeukana, salgai jarri beharko zuen. Auto distiratsua sasoi hobeak gogorarazten zizkion. Lauzpabost urte lehenago erosi zuen. Bai garai onak haiek! Etxebizitzaren prezioak gorantz zihoazen xanpain aparra bezala. Eraikuntzarako materiala barra-barra saltzen zuen. Dirutza egin zuen. Nork pentsatu behar zuen gauzak hainbeste okertuko zirenik hain denbora tarte txikian?

–Utzidazu pare bat egun pentsatzeko –esan zion Raduri.

–Pare bat egun? Bi minutu dituzu gehienez ere –presatu zuen txima-luzeak.

Sekulako hotza egiten zuen, baina Ander izerditan zegoen, kaskoa irakiten. Zirt edo zart egin behar zuen: “Proposamena onartzen badiat, akabo nire arazo guztiak, baina...”, baina ijitoak pentsatzeko betarik ere ez zion utzi. Ander zerutik jaitsi zenerako, labana handi bat jarria zion txima-luzeak lepondoan. Ezinbesteko lurreratzea egin zuen, higiezinen sektoreak bezala.

Aurrez kontu handiz taxutua zuen planari jarraiki, lantegiaren jabeari eraikuntza materiala enpresako kamionetan kargarazi eta ibilgailuan ospa egiteko prestatu zen Radu. Egin beharrekoak di-da egin, kamioneta abian jarri eta pabiloitik irtetera zihoan, sirena hotsak entzun zituenean. “Zomorroi madarikatuak”. Bere plan bikainak huts egin zuen. Baina ez zen geldirik egoteko unea. Kamionetatik jaitsi, Anderri BMWko giltzak kendu, autoaren maletategian sartzeko agindu eta autoaren gurpilekin kirrinka eginez ospa egin zuen.

Nora jo ordea? Ez zekien. Sirena hotsak gero eta hurbilago entzuten zituen. Ertzainak industrialdean sartuak izango ziren ordurako. Estutasun hartan, autobian sartzea eta Donostiarako norabidea hartzea otu zitzaion. Autobian sartzera zihoala, patruila-auto bat ikusi zuen aurrez aurre. Berehala hartu zioten susmoa zomorroiiek. Baina,

gidari trebea zen Radu. Ertzainei erreakzionatzeko denborarik utzi gabe azeleragailua zapaldu, autobian ziztu bizian sartu eta arrastoa galarazi zien. Andoain parera iritsi zenean, artean ertzainak atzetik izango zituen beldur, Iruñea aldera jotzea erabaki zuen.

Arazorik gabe iritsi zen Nafarroako hiriburura. Alabaina, Zuastiko restopetik irten eta berehala, abiadura handiak, urduritasunak eta nekeak eraginda, istripua izan zuen. Non eta Foruzaingoaren patruila bat auto gidariei dokumentazio eske ari zen biribilgune batetik bostehun metro eskasera. Ez zen bere zorte eguna.

Beharrik erne ibili zen. Foruzainak istripua gertatu zen lekura iritsi baino lehen ihes egin, Iruñeko ingurubidean sartu, handik ziztu bizian igaro eta Zaragozara zerraman autobidea hartu zuen. Ordu erdira Tafalla parean zegoen BMWa. Anderren auto begikoa. Karrozeria erabat zanpatua.

Radu, badaezpada ere, autobidetik irten eta errepede nazionala hartu zuen Tuteraraino. Txapelgorrien arrastorik ez zegoen. Ibilgailua Erriberako hirian utzi –jabea maletategian zuela– eta beste auto bat lapurtu zuen Gipuzkoara itzultzeko.

Goizeko bost eta erdiak ziren. Ia zortzi orduko guturte bidearen ondoren, Raduk poliziarari iskin egitea lortu zuen. Lapurreta gaizki atera bazitzaion ere, pozik egoteko arrazoiak bazituen. Ederretik libratu zen. Eta Ander ere bai. Bere BMWa guztiz txikitua, gorputza

mailatua eta tratua ezerezean geratu baziren ere, kaskoa lepo gainean osorik zuela utzi zuen deabru txima-luzeak autoaren maletategian.

2

DENAK GARBITUKO DITUGU



Egongelako sofán etzanda nengoen zapping egiten igande bazkalondoan. Aharrausi egin, katez aldatu, berriro aharrausi egin, aldagailu automatikoa harrika bota. Taxuzko emankizun bakar bat ere ez zegoen telebistan.

Bigarren katean albisteak ematen ari ziren. “Ikusmin handia sortu du *Asian Awakening* txinatar itsasontziaren etorrerak”, entzun nion esaten aurkezle enplastuari, pantailan itsasontzi erraldoiaren irudiak ikusten nituen bitartean. “Pasaiko portuan sar daitekeen ontzirik handiena da: 180 metro luze eta 30 metro zabal ditu. Gutxienez ere bizpahiru aste egongo da RDSHIPPING konpaniaren ontzia Buenavistako moilan, eta 21.700 tonako zama deskargatuko du”.

–Betiko zabor pila. –Sofatik marmarka zutitu eta komunera joan nintzen aspirina bat hartzera.

Enbatak jota nenbilen. Biharamunaren haize-erauntsiak, *Asian Awakening* Shangaitik Pasaiara ekarri zuten haizeen aldean bortitzak, gogor ari ziren astintzen nire kaskoa. Larunbat gaueko jan-edanek –osteratxo bat egin nuen Parte Zaharreko tabernetan adiskide batzuekin Errealaren partida ikusi eta gero– ez zidaten batere onik egin. Tripak iraulita nituen.

Aspirina hartu eta egongelara itzuli nintzen. Aurkezle ahohandiak telebistako pantailan jarraitzen zuen. Elkarritzeta egiten ari zitzaion Pasaiako Portuko Agintaritzako arduradunari. Gizaseme aurpegi-biribil sagardo kupel itxurako bat. Alboan txinatar bat zuen. Banbu kanabera bat baino meheagoa. *Gizena eta Argala* ziruditen Portularrume jaunak, Pasaiako Portuko Agintaritzako buruak, eta Ja-Xin-Tao jaunak, RDSHIPPING konpainiako ordezkariak.

–Zein dira zure iritzian, Portularrume jauna, kanpo kaia eraikitzearen aldeko arrazoi nagusiak? –galdetu zion aurkezleak portuko agintaritzako buruari.

–Europar Batasunak egoera abantailatsuan jarri du Pasaiako portua Europako azpiegitura eta garraio sareen artean, eta guk kokapen estrategiko hori baliatu behar dugu –azaldu zuen harrotasunez–. Kanpo kaiaren proiektua ez da gure apeta huts bat. Proiektua abian jartzea lortuko bagenu, ohorezko mailan jokatuko genuke.

–Ohorezko mailan diozunean, zertaz ari zara?

–Zamaontzi handiez. Egizu kontu orain 180tik gora metro luze diren ontziek arazoak dituztela portuan sartzeko. Esaterako, nire atzean duzun munstrotxo hau –esan zuen, *Asian Awakening* hatz lodiaz seinalatuz–ozta-ozta sartu da portuan. Kanpo kai berriarekin zamaontzi handien trafikoa hirukoiztuko genuke, eta nazioarteko beste konpainia garrantzitsu batzuk ate joka izango genituzke –erantsi zuen txinatar konpainiaren ordezkariari irribarre zabala eginez.

Txinatarrak bere bedeinkapena eman zien portuko arduradunaren hitzei buru-makurtze bat eginez.

–Esan beharrik ez dago horrek guztiak sekulako eragina izango lukeela gure ekonomian –jarraitu zuen Portularrumek bere hitz-jarioarekin–. Teleikusleek esaten ari naizena argiago ikus dezaten, datu batzuk emango dizkizut: RDSHIPPING konpainia mundu mailako lehen operadorea da salgaien garraioan eta hogeitik gora herrialdetako berrogeita hamar portu baino gehiagotan aritzen da.

Ja-Xin-Tao jaunak baiezkoa egin zuen berriro.

Gizena eta Argala beren esketx aspergarria antzezten utzi eta egongelatik irten nintzen. Norbaitek ateko txirrin-hotsa jo zuen.

–Zer ostia behar ote dik atso gogaikarri honek orain? –oihu egin nuen, lehenengo pisuko bizilaguna zelakoan. As-tebete baino gehiago zeraman niri egunero kalaka ematen, igogailuan erretzea debeku zela eta ezkaratza garbitzeko

txandak ez nituela betetzen gogorarazteko. Azken “bisitaldian”, ertzainei dei egingo ziela mehatxu egin zidan aluak.

Sutan joan nintzen sarrerara. Neure buruari zin egin nion sorgin hura betiko kalakarekin bazetorren, ipurtzulotik sartuko niola sukaldeko erratza. Atea ireki nuen. Ez zen auzoa. Xabier Goikoetxea aspaldiko adiskide eta kazetaria baizik. Egunkaritik kaleratu eta neure kabuz freelance kazetari gisa lanean hasi nintzenetik, lan batzuk pasatu zizkidan. Egia esatera, beragatik ez balitz, ez nuke nire pisuko alokairua ordaintzeko lain ere aterako. Izan ere, Idirren eta etorkin adingabeen auzian sudurra sartuta ibili nintzela zabaldu zenetik, betoa jarri zidaten alde guztietan eta nire ospe eta izen txarra areagotu baizik ez zen egin inguruko egunkarietako erredakzio eta bulegoetan. Zuzendaritza taldeetako kideek nire buruari prezioa jarri ziotela ematen zuen, Amerikako mendebalde basatian bageunde bezala.

Nire kidea egongelaraino sartu zen zuzenean, agur ere esan gabe.

–Etor hadi hona, Egileor. –Bere mugikorra seinalatu zidan.

–Zer egiten duk hik igande bazkalondo batean Donostian? Ez hinduten ba egunkarikoek Pasaiara bidaliko, txinatarren lehorreratzea ikustera?

–Nola asmatu duk? –solaskideak, harrituta.

–Gu erreskatatzera datozela entzun diat albistegian, Olentzero Eguberrietan bezala, baina, zakuaren orde,

itsasontziko sotoak manufaktura produktuz gainezka ditzutela. Telebistan ikusi berri diat 180 metro luzeko eta 30 metro zabaleko munstroa. Pentsatzen diat egunkari-koek lehen orrialdean atera nahiko dutela Godzillaren argazkia, ezta?

Goikoetxeak baiezkoa egin zidan.

–Gainera, aukeraz baliatu nahiko ditek –erantsi nuen–, kanpo-kaiaren onurez eta abantailez aritzeko eta Aldundiko maizter berriei barrabilak apur bat ukitzeko. Ezagutzen ditiat...

–Ez habil oker. Oraintxe bertan noak Pasaiara. RDSHIPPING konpainiako itsasontziaren eta ordezkari-tza komertzialaren etorreraren berri eman behar diat egunkarirako, hemen dauden bitartean. Beraz, txinatarren atzetik ibiliko nauk hurrengo egunetan. Azal-horien etorrera garrantzi handiko albisteak duk lurraldeko agintarientzat, enpresentzat eta gizarte-eragileentzat. Hotsa zabilerak lurralderako inbertsio handiak ekarriko dituen iragarpen bat egitekoak direla. Dirutza zagok jokoan.

–Nik ere dirutza ordainduko nitek ahaldun nagusia eta lurraldeko enpresarien elkarteko burua elkarrekin ikusteagatik, txinatarren ondoan arroz zuria zotzekin jaten eskuz esku, eta gure historiari buruzko azalpenak ematen: “Txinatarrok zotzekin jaten hasi zineten garai bertsuan altxatu genituen euskaldunok gure lehen trikuharriak” –imitatu nituen barreari eutsi ezinik.

–Trikuharriak. Ez haiz urrunegi joan?

–Trikuharritik trikuherrira, Ahaide Nagusien eta bandokideen arteko borroketatik igarota –jarraitu nuen trufaka–. Bai, motel, mundiala izango huke gure ordezkariak zulo batetik zelatatzea.

–Hi bezain traketsak baldin badituk zotzak erabil-tzen, ez diat duda egiten –sartu zidan eztena–. Egunen batean txinatar kulturako hasi-masi batzuk irakatsi be-harko dizkiat, Egileor. Aurrerapen gisa, jakin ezak egun gutxi barru urte berria ospatuko dutela.

Goikoetxeak ordulariari begiratu, serio jarri eta hitz beste egin zuen gero:

–Tira, utz ditzagun tontakeriak, eta gatozen lan kon-tuetara.

Adiskideak tablet bat atera, sudur, begi eta hatzak pantaila karratuan sartu, tekla batzuk jo, gero tableta niri eskuratu eta hizketan jarraitu zuen:

–Irakur ezak oharra. Herrizaingo Saileko Prentsa Bulegotik bidali ditek gaur goizean.

–Heil, Hitler! –men egin nion irakurtzen hasi baino lehen.

–Zer iruditzen?

–Ez diat bukatu oraindik.

–Tira, mugi hadi, ez diat-eta egun osoa hiretzat.

Presaka irakurri nuen azken paragrafoa:

–(...) *Biktimak eraikuntza materiala zeukan salgai eta usteko eroslearekin hitzordua zuen. Bileran “materiala ordaintzeko modu berezi bat” proposatu zion erosleak*

saltzaileari. Prozesu kimiko baten bidez berrogeita hamar euroko eta ehun euroko billeteak bikoizteko gauza zela esan zion, eta hogeitazero euroko billete batekin erakustaldia egin. Materialaren jabea aipatu proposamena aztertzen ari zela, erosleak labana batez mehatxu egin eta eraikuntza materiala enpresaren kamionetan kargarazi zion, ibilgailuan ospa egiteko asmoarekin. Motorra abian jarri eta lantegitik irtetear zela, ordea, Ertzaintzaren patruila auto baten sirena hotsak entzun eta planak aldatu behar izan zituen. Kamioneta utzi, saltzaileari bere autoaren giltzak kendu, ibilgailuaren maletategian sartzeko agindu eta ihesari eman zion autoan.

»Ordiziako gaztea Tuteran aurkitu du bart Nafarroako Foruzaingoak. Bere autoaren maletategian giltzapetuta baina onik. Halaber, billete tindatuen maula egiteko erabiltzen diren material eta produktuak atzeman ditu ibilgailuan. Ertzaintza eta Foruzaingoa susmagarriaren atzetik dabilta; dirudienez errumaniar ijito gazte bat, halako delituetan oso ohikoa den bezala.

–Eta? –Goikoetxeak, urduri.

–Hemen oro ez dela urre, aixkide! Horra, ipuinaren erakutsia –erantzun nion tableta berari itzuli eta gero–. Gainerakoan, perla polita amaierako esaldia.

–Zoritxarrez hau ez duk ipuin edo koplak bat, benetakoa errealitatea baizik.

–Egunkarietako ezbeharren atalak irakurtzea besterik ez zagok horretaz konturatzeko. Itxura batean nahiko berri arrunta ematen dik.

–Bai, berri arrunta izango hukeen, azken boladan Goierrin gisa horretako eta bestelako lapurretak, iruzurrak, erasoak eta mehatxuak ugaritu izan ez balira, eta, okerrago dena, antza aipatu lapurreta, iruzur, eraso eta mehatxuei erantzun eta beren kabuz justizia egin nahian edo, bart Beasaingo errumaniar ijito baten etxeari su ematen saiatu izan ez balira gaztea barruan zela. Orain mutila leku ezezagunean zegok –nabarmendu zuen Goi-kok hizketan jarraitu baino lehen–. Gertaeren tokian pintada arrazistak agertu dituk, “Benetako Euskaldunak” izeneko talde misterioitsu batek sinatuak.

–Eta zer jartzen zuen pintadetan?

–“Denak garbituko ditugu” –ihardetsi zuen hitzak astiro ahoskatuz–, zirkulu baten barruan sartutako he-rensuge gorri baten irudiaren ondoan.

–Beraz, hona ere iritsi dituk ijitoen aurkako pogromak. Alemanian, Frantzian, Italian edo Hungarian bezala. Euskaldunok beti geure zilborrari begira eta txokokerietan gabiltzala leporatuko zigutek gero.

–Joder, hik bai daukaala burua Hungarian, Egileor –bota zidan kideak ordulariari begira–. Tira, utz itzak tontakeriak eta entzun iezadak ongi, babo halakoa: Goie-rriko herritar talde batek manifestazioa deitu dik biharko Beasainen, ordiziar gaztearen bahiketa eta herritarren artean zabaldu den segurtasun eza salatzeke.

–Eta zer nahi duk, haiei pankarta eramaten lagun-tzea? –Algara egin nuen.

Ez entzunarena egin zuen adiskideak.

–Lehen ere esan diat txinatarren atzetik ibiliko naitzela egun batzuetan. Nolanahi ere, Beasaingo manifestazioaren berri eman eta auziaren jarraipena egingo dudala agindu zieat egunkariko arduradunei. Kontu honetan ere interes handia zaukatek. Badakik, gai hauen berri emanez gero, ale gehiago saltzen dituk kioskoetan. –Hatz lodia eta erakuslea elkarren kontra igurtzi zituen–. Beraz, hire laguntza behar diat.

–Elkarretaratzearen berri ematea nahi duk orduan?

–Bai, baina ez hori bakarrik –erantzun zidan urduri–. Azken aldian lana pilatzen ari zaidak, ez nauk denetara iristen, eta gainera susmoa diat kontu honek ez ote duen soka luzea ekarriko. Beraz, hik aurrerantzean aipatu gertaeren inguruan sortzen diren berrien kronikak idaztea nahi diat egunero-egunero egunkariaren edizio digitalerako, eta, bide batez, auzia ikertzea. Ea eskusibaren bat lortzen duan.

–Hara bestea, hi! Denetarako morroiaren aurpegia ikusten didak, ala? –galdetu nion txistu eginez.

–Ez duk ba esaten ikerketa kazetaritza atsegin duala? Horra, aukera paregabea ikerlanerako eta diru kopuru polit bat poltsikoratzeko. –Ezker begia kliskatu zidan irribarre eginez–. Tira, haizebelats, zer diok?

–Zer diodan? Ikerketa kazetaritza ez zaiola inori interesatzen eta azkeneko lanagatik ez hidala askorik ordaindu.

–Ziur nagok oraingoan gehiago iritsiko zaiala.

Pentsakor eta isilik geratu nintzen une batez, itxurak egitearren batez ere, zeren, auzi hura bereziki atsegin ez banuen ere, kasua hartu beste aukerarik ez nuen. Ezin nuen Goikoetxea, hainbeste lagundu zidan kide eta adiskidea, ataka gaiztoan utzi. Eta gero, jakina, diruaren kontua zegoen. Diru premia larrian bainengoen. Goikoetxeak agindu bezala diru kopuru polit bat irabazten banuen, nire finantzen zulo beltzak estali eta beharbada aspaldiko partez oporretan joateko aukera izango nuen. Rio de Janeiro etorri zitzaidan burura bat-batean. Neure burua imajinatu nuen bertan. Egunez bainujantzian, caipirinha bat eskuan, hiriko hondartzetako ur garden bareek zilbor inguruan kilimak egiten zizkidatela. Eta gauez, sanbodromoan, inauteriez gozatzen.

–Tira, ongi duk –onartu nuen Goikoetxeak eskainitako lana, oinak berriro lurlean ipiniz.

Nire hitzak entzun orduko egongelatik atera, korridoretik bidelari baten abiaduran igaro eta sarrerako atea ireki zuen Goikoetxeak.

–Bihar deituko diat –esan zidan bizkarrez, igogailuan sartzen zen bitartean.

–Ez duk trago bat hartzera geratu nahi? –Galiziatik ekarri berri zidaten orujo botila bat erakutsi nion.

–Ez, banoak airean Pasaiara –ihardetsi zuen sakelako telefonoari begira.

–Ohitura onak galtzen ari haiz –oihu egin nion, igogailuaren atea ixten zen bitartean.

Egongelara itzuli eta sofán jarri nintzen berriro. *Asian Awakening* itsasontzia zuen berriro hizpide albistegiko aurkezle pisuak.

–(...) *Minutu batzuk barru zuzenean joko dugu berriro Pasaiako portura* –jakinarazi zuen aurkezleak.

–O ez, berriro ez. –Telebista itzali, orujo botila ireki, edalontzia goraino bete eta trago bakar batean hustu nuen.